



EBAZPENA, 2021eko azaroaren 5koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeaketako zuzendariarena, zeinaren bidez irekitzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan 2022/2023 ikasturterako ordezkapenak egiteko izangaien zerrenda urtero birbarematzeko prozedura

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan pertsonal irakasleen aldi baterako premiak betetzeko izangaien zerrenda kudeatzeari buruzko araudia onartzen duenak, V. kapituluan eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lan-legepeko irakaskuntza-eta hezkuntza-pertsonalaren hitzarmen kolektiboak III. eranskinean xedatutakoaren arabera, urtero, zerrendetan dauden izangaien merezimenduak birbarematu behar dira.

Ikasturtearen hasierako esleipenen egutegia aldatzeko eta horien hasiera aurreratzeko aurreikuspenak zuzenean eragiten du birbaremazio-prozesuetan; eta prozesu horiek ere aurreratu egin behar dira, esleipen horien egutegiarekin bat etortzeko. Beraz, ikasturte honetatik aurrera, birbaremazio-prozesuaren hasiera urte bakoitzeko azarora aurreratu da, eta zerrenda berrietan sartzeko baldintzak betetzeari, merezimenduak zenbatzeari eta zerrenda orokorrean eskaera berriak sartzeari dagokionez, hartuko den data birbaremazio-prozesu bakoitza hasten den urteko abuztuaren 31 izango da.

Hasi den birbaremazio-prozesu horretan, kontuan hartuta ikasturte hasierako egutegi berrira egokitu behar dela, esperientziaren zenbaketa, merezimenduen baremoaren barruan, 2021eko martxoaren 7tik (2021/2022 ikasturterako birbaremazio-prozesuan zenbatutako azken egunaren hurrengo eguna) 2021eko abuztuaren 31ra artekoa izango da; eta hurrengo birbaremazio-prozesuetan (behin egokitzapen hori amaitu eta gero), esperientziaren urteko zenbaketa 360 eguneko izango da berriz ere, prozesua hasten den aurreko urteko irailaren 1etik urteko abuztuaren 31ra bitartean.

Horrela, bada, birbaremazio-prozesua hasten da, izangai bakoitzari bere fitxa emanez, egindako birbaremazioaren emaitzekin, eta, ados egon ezean, alegazioak aurkezteko epe bat finkatuko da. Zerrenda orokorrean dauden pertsonak, aipatutako epe horren barruan, ondokoa egiteko aukera ere izango dute: aukeretan aldaketak sartzeko, merezimendu berriak alegatzeko eta dokumentazio berria aurkezteko. Zerrenda bereizietako pertsonak (zerrenda orokorrean ez daudenak) ere aukera izango dute alegazioak egiteko eta merezimendu berriak aurkezteko; baina, ordezkapenak egiteko aukerei dagokienez, zerrenda bereizian sartzea eragin zuen zerrenda irekitzean adierazi zituztenekin jarraituko dute.

Prozedura horretan, eta, ondorioz, prozeduratik ateratzen diren zerrendetan, behin betiko integratuko dira aurreko eta egungo birbaremazio-prozeduraren artean ebatzitako zerrenden irekieretan onartuak izan diren pertsonak, bai eta irekita mantentzen diren zerrendetan sartzeko 2021eko otsailaren 31 baino lehenago eskaera egin duten pertsonak eta zerrendetan sartzeko baldintzak betetzen dituztenak ere.

Bestalde, honako kasu hauetan dauden pertsonak kanporatuko dira: erretiroa hartu dutenak eta heriotza edo ezintasun iraunkor egoeran daudenak.

Horrenbestez,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Irekitzea urteroko birbarematzeko prozedura; hau, 2022/2023 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko izangaien zerrendarako izango da.

Bigarrena.- Izangaien fitxak argitaratzea 2021eko azaroaren 8tik 16ra, biak barne. Fitxa horietan, pertsona bakoitzaren datuak, ordezkapen-aukerak eta merezimenduen birbaremazioa jasoko dira.

Interneteko helbide honetan ikusi eta inprimatu ahal izango dira: <https://hezigunea.euskadi.eus/eu> (sartu NAN/AIZ eta pasahitza) - Eremu pertsonala – Izapideak langileen sailarekin – Ordezkapen izangaien birbaremazioa – Izangaiaren fitxa. Pasahitza gogoratu ezean edo galdu baduzu, beste pasahitz bat lortu ahal izango duzu <https://hezigunea.euskadi.eus/eu> atalean - Pasahitza ahaztu duzu.

Hirugarrena.- 2021eko azaroaren 8tik 16ra bitarteko epea irekitzea identifikazio-datuak eta aukerak aldatzeko, aldatutako aukerekin edo merezimendu berriekin lotutako dokumentazio berria aurkezteko edo egokitzea jotzen diren alegazioak egiteko. Jarduera horiek guztiak telematikoki egingo dira, <https://hezigunea.euskadi.eus/eu> atalaren bidez (sartu NAN/AIZ eta pasahitza) - Eremu pertsonala – Izapideak langileen sailarekin – Ordezkapen izangaien birbaremazioa – Aukerak aldatzea/dokumentazioa entregatzea.

Laugarrena.- Zerrenda berrietan sartzeko baldintzak eta merezimenduak 2021eko abuztuaren 31koak izan behar dira, I. eranskineko 3. ataleko merezimendua izan ezik (merezimenduen baremoa), ebazpen honen hirugarren atalean adierazitako alegazio-epea amaitu arte hartuko da kontuan.

Bosgarrena.- Dokumentazioa modu telematikoan aurkezteko, zehaztaper hauek egiten dira:

- 1.1 atalean aipatutakoak ez diren erakundeen mendeko **ikastetxe pribatuetan** eta ikastetxe publikoetan irakaskuntza-esperientzia egiaztatzeko, lan-kontratua, NANA eta lan-bizitza entregatuko dira aipatutako Interneteko helbidearen bidez. Salbuespen gisa, lan-kontratua aurkeztu ezin duenak ikastetxeko zuzendaritzak emandako ziurtagiria aurkeztuko du, Ikuskaritzaren oniritzirik gabe; hau da, Hezkuntza Sailak zuzenean jasoko du. Azken kasu horretan, lan-bizitza ere aurkeztu beharko da.

- **Argitalpenak** entregatzea (Arte dramatikoak eta Dantza espezialitateetan): adierazitako Interneteko helbidearen bidez, azalaren kopia, lehen 10 orrialdeak eta ISBN edo ISSN agertzen den orria entregatuko dira. Beharrezkoa bada, gerora, argitalpen osoa aurkezteko eskatu ahal izango da.

- Erljio Katolikoaren zerrendan sartutako hautagaien **Missio Kanonikoaren** urteroko berritzea: hautagaiek eskaera egin beharko diote Erljioa ematen jarraitu nahi duten Lurralde Historietako Gotzaindegiei, beti ere ebazpen honen hirugarren atalean ezarritako epearen barruan. Eskaera honako mezu elektronikoen bidez egingo da:

Araba/Álava: educacion@diocesisvitoria.org

Bizkaia: hezkuntza@bizkeliza.org

Gipuzkoa: irakaskuntza@elizagipuzkoa.org

Era berean, zerrenda horretan lehen aldiz izena eman nahi izanez gero, adierazitako mezu elektronikoen bidez Missio kanonikoa eskatu beharko da eta hirugarren atalean ezarritako epearen barruan entregatu.

Seigarrena.- Birbaremazio-prozedura honetan, honako hauek sartuko dira ordezkogaien zerrendan:

- 2020/2021 ikasturtean zerrenden irekieran onartutako pertsonak, beti ere 2021/2022 ikasturterako birbaremazio-prozeduran sartu ez zirenak.
- 2021eko abuztuaren 31ra arte (egun hori barne) irekita mantentzen diren zerrendetan sartzeko eskabideak aurkeztu dituzten pertsonak, baldin eta sartzeko baldintzak betetzen badituzte.

Zazpigarrena.- Irekita mantentzen diren zerrendei dagokienez, ebazpen honen I. eranskinean (*) honako hauen berri ematea:

- 2021eko abuztuaren 31ra arte zerrendetan sartzeko eskabidea aurkeztu duten eta sartzeko baldintzak betetzen dituzten pertsonen zerrenda.
- 2021eko abuztuaren 31ra arte zerrendetan sartzeko eskabidea aurkeztu duten baina sartzeko baldintzak betetzen ez dituzten pertsonen zerrenda. Pertsona horiek nahi dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte birbaremazio-prozesu honen barruan, ebazpen honen hirugarren atalean adierazitako epean.

(*) Eranskina kontsultatu: <https://hezigunea.euskadi.eus/eu> - Ordezkapen izangaien birbaremazioa

Zortzigarrena.- Argitara ematea Ebazpen honen II. eranskinean (*) zerrendatik kanpo geratu behar diren pertsonen zerrenda honako egoeraren batean egoteagatik: erretiroa, heriotza edo ezintasuna iraunkorra. Nahitaezko erretirorako adinera iristeagatik bazterketari dagokionez, arrazoi hori ez da aplikatuko izangaiek honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Nahitaezko erretirorako adina betetzen duten ikasturterako birbaremazio-prozesuan aktibo egotea eskatzen dutenak eta, gainera, adin hori betetzen duten egunetik aurrera izendapen jarraituak dituztenak.
- 65 urterekin, gizarte-aurreikuspeneko erregimena erregulatzen duten arauekin bat etorriz, pentsioaren % 100 sartzeko behar diren zerbitzu- edo kotizazio-urteak ez egiaztatzea.



Jardunean jarraitzeko, hirugarren atalean adierazitako helbidearen "Beste datu eta/edo alegazio batzuk" atalean eskatu beharko dute.

(*) Eranskina kontsultatu: <https://hezigunea.euskadi.eus/eu> - Ordezkapen izangaien birbaremazioa

Bederatzigarrena.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren III. eranskinean aurreikusitako titulazio-baldintzak betetzen ez dituzten izangaiek Ekonomia (0205) eta Marrazketa (0239) zerrendetan sartzeari dagokionez antzemandako akatsak zuzentzea.

BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 5a